



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

XXXV San Martin Azoka
Parte hartzeko oinarriak

XXXV Feria de San Martín Azoka
Bases que rigen la convocatoria

EDIZIOA

“San Martin” azokaren XXXV. edizioa
2025. urtea

AZOKA EGUNA

AZOKAREN HELBURUA

LEHIAKETA ERAKUSTAKO MODALITATEAK

LEHIAKIDEAK

POSTUEN ESLEIPENA

MODALITATE BAKOITZEAN HARTU AHAL IZATEKO BALDINTZAK

- 1) Fruta eta ortuariak
- 2) Gazta
- 3) Sagardoa
- 4) Txakolina
- 5) Ogia
- 6) Eztia
- 7) Aipamen berezia

IZEN EMATEA

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

EPAIMAHAIKIDEAK

XEDAPEN OROKORRAK

SARIAK ETA DIETAK

OHARRAK



XXXV San Martin Azoka Parte hartzeko oinarriak

XXXV Feria de San Martín Azoka Bases que rigen la convocatoria

AZOKA EGUNA

2025eko azaroaren 8an (larunbata) Ermuan.

AZOKAREN HELBURUA

Azoka honen bitartez, Ermuan **euskararen erabilera** sustatu nahi da ahoz, entzunez zein begiz.

LEHIAKETA-ERAKUSKETAKO MODALITATEAK

1. Fruta eta ortuariak
2. Gazta
3. Sagardoa
4. Txakolina
5. Ogia
6. Eztia

LEHIAKIDEAK

Bizkaiko udalerrri guztietako ekoizleek parte hartu ahal izango dute. Salbuespen moduan mugakide den Eibarko ekoizleek ere eskabidea bidera dezakete.

Postuen kopurua mugatua denez, denontzako lekua egon ezean, aukeraketa egiteko orduan, Durangaldeko nahiz Lea-Artibaiko eskualdeko herrietako ekoizle izatea eta parte-hartzaileak azokan izan duen antzintasuna hartuko dira kontuan.

POSTUEN ESLEIPENA

Postu edo saltokiak Orbe kardinalaren plazan zein batzuk inguruetako kale eta plazatxoetan kokatuko dira.

Gazta, sagardoa, eztia eta txakolinetako erakustokiak bi metro eta erdikoak izango dira. Fruta, ogia eta ortuarietakoak bi metro eta erdikoak edota bost metrotakoak.

Erakustokiak zozketa publikoaren bidez esleituko dira Lobiano Kulturgunean, urriaren 30ean, osteguna, arratsaldeko 19:00etan egingo den ekitaldian.

MODALITATE BAKOITZEAN PARTE HARTU AHAL IZATEKO BALDINTZAK

Baserritarrak bere ustiatzean ekoizten dituen produktuak bakarrik saldu ahal izango ditu. Horrela dela ziurtatzeko antolatzaileek azokaren aurretik ustiapena bisitatzeko eskubidea dute holakoetan ekoizleek harrera egokia egin behar diote bisitan doan antolatzaile taldeari.

Antolatzaileek baimendu gabeko gaiak ezin izango dira saldu. Produktu guztiek salmenta prezioa izan behar dute.

Garbitasun eta osasun baldintzak betetzen dituzten elikagaiak baino ezin izango dira saldu eta ontziratutako produktu guztiak behar bezala etiketatuta egongo dira.

1. Fruta eta ortuariak

Nekazaritza ekologikotik datozen produktuak, dagokien bermearekin babestuta egongo dira.

Beste produkturen bat (ogia, eztia,...) ekarriz gero, izena ematerako orduan aipatu behar da.

2. Gazta

Ardi, behi edo ahuntz esnez egindako gazta saltzeko osasun erregistroa aurkeztu beharko da. Gazta guztiak egoki etiketatuta egongo dira, ekoizlearen izenarekin eta osasun erregistroko zenbakiarekin. Gaztak gutxienez bi hilabete izan behar ditu salmentan jartzeko.

3. Sagardoa

Osasun erregistroaren agiriaz gain, botilatzailearena ere aurkeztu beharko da.

Lehiakideek eurek ekoiztutako hoge (20) sagardo-botila aurkeztu beharko dituzte gutxienez.

4. Txakolina

Osasun erregistroaren agiriaz gain, botilatzailearena ere aurkeztu beharko da.

Lehiakideek eurek ekoiztutako hoge (20) txakolin-botila aurkeztu beharko dituzte gutxienez.

5. Ogia

Indarrean dagoen legeriak agintzen duenez, ogia ontziratuta eta etiketatuta saldu behar da. Euskal pastela banaka saldu ahal izango da, baina ontziratuta eta etiketatuta, zatitu gabe. Gozogintzako gainerako produktuak (bizkotxoak, opilak eta abar) ontzi indibidualetan salduko dira, zatitu gabe.

Bestelako pastelak (pastak, madalenak eta abar) ontzi egokietan salduko dira eta higiena-baldintzak errespetatuz manipulatuko dira. Aipatutako produktu hauek guztiak, behar bezala etiketatuta salduko dira. Gai hauek saltzeko osasun erregistroa aurkeztu beharko da.

Lehiakideek eurek egindako hamar (10) ogi aurkeztu beharko dituzte gutxienez.

6. Eztia

Ekoizpen eta osasun kontrolen araudiak ezarritako baldintzak bete behar ditu.

Eztia aurkezteko ontziek beirazko gardena beharko dute izan, kilokoak edo kilo erdikoak.

Kremak saltzeko osasun erregistroa aurkeztu beharko da, eta ezin izango dira sendabide loziotzat saldu.

7. Aipamen berezia

Aipamen berezia egingo zaio, beste saririk eskuratu barik, erakustokirik txukunena eta dotoreena jarri duen lehiakideari.

IZEN-EMATEA

Izen-ematea urriaren 1tik 10era bitartean (biak barne), ondoko helbidean egin beharko da, goizeko 8:00etatik 15:00etarako ordutegian:

Ermuko Udala
Abiapuntu bulegoa
Konbentukoa 3
48260 Ermua (Bizkaia)

Bestelako galderak edo zalantzak euskalbirusa@gmail.com posta elektronikora idatziz argituko dira (Euskal Birusa Kultura Elkartea).

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Eskabide orria osorik eta zuzen beterik eta sinaturik.
- Eskatzaileak azokara ekarriko dituen produktuen zerrenda.
- Produktuarekiko eta esplotazioarekiko agiriak:
 - ✓ Titularraren NAN fotokopia
 - ✓ Osasun erregistroaren fotokopia
 - ✓ Nekazal esplotazioko txartelaren fotokopia
 - ✓ Manipulatzailer txartela
 - ✓ Jarduera Ekonomikoen Jardueren gaineko zergaren fotokopia.
 - ✓ Elikagai industriaren baimena
 - ✓ Enbotelatzailer agiriaren fotokopia

EPAIMAHAIKIDEAK

Epaimahaia honako kideek osatuko dute:

- Teknikariek, gaien arabera
- Udalerriko ordezkariak

Antolatzaileek eta epaimahaikoek eskubide osoa dute produktuen egiazkotasuna frogatzeko, eta jatorriaren inguruan zalantzarik sortuz gero produktua eman duen ortura joan daitezke.

XEDAPEN OROKORRAK

- 1) Ekoizle bakoitzak bere produktua baino ezin izango du saldu, bere ustategian edo baimen sanitarioa daukan establezimendu baten ekoiztutakoak izan behar dute.
- 2) Ekoizle bakoitzak gutxieneko produktuak ekarri beharko ditu azokara. Antolakuntzak gutxieneko hori betetzen ez baldin bada eta ekoizleari dietaren bat egokituz gero, dieta hori ukatzeko aukera izango du.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

XXXV San Martin Azoka Parte hartzeko oinarriak

XXXV Feria de San Martín Azoka Bases que rigen la convocatoria

- 3) Izena ematerako orduan, parte hartzaileak argi ta garbi azaldu beharko du ze produktuekin datorren eta ze sailetan hartuko duen parte (fruta eta ortuari, ogia, gazta...) antolakuntzak behar duen lekua bermatzeaz gain, inguruan antzeko produkturik egokitu ez dadin.
- 4) Egokitu zaion postua eta espazioa baino ez okupatu
- 5) Garraioa lehiakidearen kontura izango da, bai eta erakusketarako produktuak behar bezala antolatzea ere.
- 6) Saltzaileen ibilgailuak ezarritako lekuetan aparkatuko dira.
- 7) Erakustokiak, berriz, antolatzaileek instalatuko dituzte.
Goizeko 7ak baino lehen postuetara gerturatzea debekatuta dago, goizeko 8:00etarako postu guztiak prest egotea bermatuko dute antolatzaileek.
- 8) Elikagaiak ez dira lurzoruarekin kontaktuan egongo.
- 9) Erakustokien arteko pasabideak libre egon behar dira, kutxa, saku eta holako barik.
- 10) Produktuak goizeko 10:00etatik arratsaldeko 14:30ak arte egon beharko dira ikusgai.
Epaimahaikoak goizeko 10:00etan hasiko dira produktuen kalitatea baloratzen.
Saltokiak, berriz, jendearentzat goizeko 11:00etatik aurrera egongo dira zabalik.
- 11) Publikoari zuzendutako informazio guztiak (errotulazioa...) euskaraz egon behar du. Nekazariak ahozko harremana euskaraz bermatuko du.
- 12) Errotulazioa euskaraz egoteaz gain, produktu bakoitzaren prezioa argi ta garbi azaldu beharko da.
- 13) Lehengo hitza euskaraz egin, bigarrenak ere, errepikatu euskaraz. Ez pentsatu bezeroak euskaraz ez dakienik; ez hasi zuk erdaraz! Azokaren helburu nagusia euskara sustatzea da, Zure laguntza ezinbestekoa da.
- 14) Produktuekin zerikusia duten agiri guztiak (osasun erregistroa, etiketak eta produktuaren jatorria identifikatuko duten gainerako agiri guztiak) antolatzaile ikuskatzailearen eskura egongo dira postu guztietan. Identifikatu gabeko produktuak berehala kentzeko agindua eman ahal izango da eta zigor bat jarri ahal izango zaio.
- 15) Sortutako hondakinak biltzen joango dira eta salmentako ordutegia amaitzen denean prestatutako puntuetara eramango dira, postua eta bere ingurua txukun itxi beharko ditu.
- 16) Hasteko eta amaitzeko ordutegia errespetatuko da eta bitartean ezin izango da ibilgailurik salmenta esparruan sartu.
- 17) Edari alkoholduak adin txikikoei saltzea edo hornitzea erabat debekatuta egongo da. Ildo horretan, edari alkoholduak salduko diren postu guztietan ikusteko moduan jarri beharko dira adin txikikoei edari alkoholduak saltze debekatuta dagoela adierazten duten kartelak.
- 18) Errespetuz tratatu eta tratatuak izan
- 19) Antolatzaile edo epaimahaikoek, mailarik ez badago eta beharrezkotzat jotzen badute, saririk ez emateko eskubidea izango dute, erabakia gorabiderik gabea izanik.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

XXXV San Martin Azoka Parte hartzeko oinarriak

XXXV Feria de San Martín Azoka Bases que rigen la convocatoria

- 20) Azokaren antolatzailea EUSKAL BIRUSA Elkarte da eta bera da arduradun nagusia. Beraz azoka egunean bertan edo aurreko egunetan edozein arazo edo zalantza-rako berarekin jarri harremanetan.
- 21) Parte hartzeko ezinbestekoa da arau horiek guztiak eta indarrean dagoen legedia kontuan hartu eta betetzea¹. Araudi hau ez betetzeak lehiakidearentzat saria edo dieta galtzea ekar lezake zein hurrengo azoketarako baztertua izatea.

SARIAK ETA DIETAK

1. Fruta eta ortuarien lehiaketa-erakusketa

1. Saria: 250 € eta garaikurra
2. Saria: 200 €
Dieta: 100 €

2. Gazta lehiaketa

1. Saria: 125 € eta garaikurra
2. Saria 100 €

3. Sagardo lehiaketa

1. Saria: 100 € eta garaikurra

4. Txakolin lehiaketa

1. Saria: 100 € eta garaikurra

5. Ogi lehiaketa

1. Saria: 100 € eta garaikurra

6. Ezti lehiaketa

1. Txilar ezti Saria: 125 € eta garaikurra
1. Mila-lore ezti Saria: 125 € eta garaikurra

7. Aipamen berezia

- Ermua Hiriko Udalak emaniko 150 euoko sari bakarra egongo da.

¹ Araudi orokorra 852/2004 Erregelamendua

Araudi espezifikoa:

- Nazionala: 199/2010 Errege Dekretua
- Autonomikoa: 7/1994 Legea
- Bizkaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 15/2015 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

XXXV San Martín Azoka Parte hartzeko oinarriak

XXXV Feria de San Martín Azoka Bases que rigen la convocatoria

OHARRAK

- a) Antolatzaileek musu-truk egiten dute lan, eta eurekiko begirunea eskatzen da. Antolatzaileekin portaera desagokia izanez gero, egileak azokan parte hartzeko aukera galduko du.
- b) Fruta eta ortuarien erakusketan sariren bat eskuratzen duen lehiakideak ez du dietarik jasoko.
- c) Sal ezin daitekeen produktua salgai jarritz gero, dagokion dieta gal daiteke.
- d) Ez da onartuko birsaltzaileen presentziarik azoka gunean.
- e) Partaideek doako aparkalekua izango dute Ermuko Udalak zehaztuko duen orubean.

AZKENA

Oinarrien agiri honetan aurreikusi ez diren egoerak edo baldintzak erakunde antolatzailearen irizpideen arabera ebartziko dira eta bere erabakiei ezingo zaie errekurtsorik jarri.